



KAIXO LAGUNOK!!




Zer moduz zaudete? Ni Txo Mik Mak txikia naiz eta Albaolatik nator!! Ni naiz Faktoriako jolasen gidaria.

2020ko gabon hauetan, zuek niregana etorri behar-
rean, nik neuk, **zuen etxeetara joatea erabaki dut!!**
Utziko al didazue sartzen? Ariketa eta erronka desber-
dinak proposatzen dizkizuet elkarrekin une atsegina
pasatzeko!

Anima zaitzte koaderno hau osatzera!!

Albaolan eraikitzen ditugun ontziei buruz gehiago
ikasiko duzue. Honez gain, nabigaziorako tresnak ere
ezagutuko ditugu, baita itsas-korapiloak egiten ikasi
ere!! Ausartzen al zarete?

*Zatozte nirekin ontzigintzan eta
nabigazioan murgiltzera!!*






1

Albaolak eraikitako eta eraikitzen ari den hiru ontzi desberdin aurkeztu nahi dizkizuet. Lotu ditzakezue ezkerreko deskribapenak, itsasontzien marrazkiekin eta bakoitzari dagokion izenarekin??

Ontzi mota: trainerua

Noiz eraikia: Estatu Batuetan eraiki zidaten 1997an

Historia: horrelako traineruak XVIII.mendean sortu ziren arrantzarako. Oso bizkorak eta arinak ziren. 13 arraunlarik bultzatzen zuten, eta bere forma egokiagatik, ziaboga txikiak egin zitzaizketen, inguraketa-sarea baborreko aldetik bota eta arrainak inguratzeko. Traineruetako belak, mugitzeko bakarrik erabiltzen zituzten, arrantza-jarduera bera, arraunez soilik burutzen baitzuten. Traineru honek 11,5 metro ditu luzeran eta bi masta.




AMERIKETATIK

Ontzi mota: patatxea

Noiz eraikia: Albaolan ari didate eraikitzen oraintxe bertan!! Ikusi nahi didazue? Zatozte bisitan!

Historia: horrelako patatxeak XVIII.mendean erabiltzen ziren mezuak herri batetik bestera pasatzeko, eta esan behar dugu kortsarioek ere asko maite zutela! Abordaiak egiteko oso egokiak ziren bere azkartasunagatik.

Ni eraikitzen bukatzen nautenean, 15 metro luzeran eta bi masta izango ditut! Trainerua baino handiagoa naiz! 20 arraunlari beharko dira ni mugitzeko. Etorriko zarete gurekin nabigatzera?




JUANITA LARANDO

Ontzi mota: baleontzia

Noiz eraikia: 2014an hasi ziren ni eraikitzen. Ikusi nahi didazue? Zatozte Albaolara!

Historia: ni, XVI.mendean Pasaian bertan eraiki zen San Juan baleontzia bezalakoa naiz. Ternuara joaten ginen baleontziak bale ehizara ozeano Atlantikoa zeharkatuz. Bueltan, ehundaka olio kupel ekartzen genituen Europa argiztatzeko.

Bukatzen didatenean ikusiko duzue zein potoloa naizen kupel guzti horiek sartzeko! 28 metroko luzera eta hiru masta izango ditut.



SAN JUAN



Ba al zenekien??


“Juana Larandok XVII.mendean ostatu bat zuen Donostiako Alde Zaharrean eta bere bezero guztiak **kortsarioak** ziren. Koroaren etsaiak ziren ontziak harrapatu eta lapurtzen ibiltzen ziren kortsarioak patatxeetan, eta Juanak, patatxe hauetan inbertitzen zuenez, harrapaketatatik zegozkion mozkinaren parteak jasotzen zituen. Bere omenez jarri diogu patatxeari bere izena!

2

Itsasontziak energia-iturri desberdinekin mugitzen dira.
Lotu itsasontzi bakoitza, mugitzeko behar duen energia-iturriarekin.



HAIZEAREN INDARRA



DIESEL MOTORRA



BAPOREA



GIZAKIAREN INDARRA



Zein da ingurugiroarentzat onena??





3

Zuek itsasontzi bat eraiki beharko bazenute, nolakoa egingo zenukete? Nola mugituko litzateke? Marraztu edo diseinatu ezazue gustuko itsasontzia. Bukatutakoan, **igo zuen eskulanean argazkiak @albaola #nireitsasontzia jarrita eta bi lagun etiketatu berea egitera anima daitezen!**



Birziklatzeko den materiala erabili dezakezue: botilak, txotxak, kortxoak, oihal zatiak, arrautzak gordetzeko kaxak... Paperezko edo kartulinazko ontzia ere egin dezakezue... Jarri irudimena martxan!!



Hona hemen adibide batzuk:



Behin zuen itsasontzia eginda, nora bidaiatuko zenukete?
 Eta itsasoan, nola orientatuko zinatekete?
 Badaude tresna oso lagungarriak.
 Lotu izenak, nabigatzeko tresnen marrazkiekin!



IPAR-ORRATZA

KARTA NAUTIKOAK

IZARRAK

SEXTANTEA


KATALOXA

5

Itsasoan ez galtzeko, puntu kardinalak kokatzen jakin behar da. Lau dira: **iparra, hegoa, ekialdea eta mendebaldea**. Ba al dakizue non dagoen iparraldea zuen etxean? Eguzkiak lagunduko digu asmatzen!

> Ilunabarrean jarri besoak zabalduz. Idatzi zuen ezkerreko eskuan **M** letra larriz. (edo post-itak erabili ditzakezue). Mendebaldea markatuko du esku honek. Eskuineko eskuan idatzi **E** letra, ekialdea markatuko digu eskuinak. Kopetean nahi baduzue, idatzi **I** letra, iparraldea markatzeko.

Eguzkia ekialdetik ateratzen da eta mendebaldetik sartzen da ia beti. Beraz jarri eskuineko eskua eguzkia ateratzen den aldera begira eta ezkerrekoa eguzkia sartzen den aldera. Zuen aurrealdea da iparra. Horrela jakin ditzakezue puntu kardinalak ipar-orratza izan ezean!






6

Bi zenbaki ematen badizkizuet, kokatuko dituzue mapan? Koordinatuak ematea da hau, latitudea eta longitudea emanda, puntu edo leku bat kokatu dezakegu mapan. Lehenengoa jada kokatu dizuet mapan, ea hurrengo herriak topatzen dituzuen!

MENDEBALDEA




- PASAIA> 43°I 2°M
- RED BAY> 51°I 45°M
- TITANIC> 41°I 49°M
- SEVILLA> 37°I 5,9°M
- CABO VERDE.....> 16°I 24°M
- MEXIKO> 19°I 99°M

7

Nola komunikatzen dira itsasontziak beraien artean itsasoan daudenean? Kode internazional bat daukate, denek ulertzen duten hizkuntza. Begiratu beraien kodea eta asmatu ezazue zein den mezu sekretua!!



Kodea:



Asmatu zein den mezua!





Ba al duzue ohiturarik egunerokoa idazteko? Itsasontzie-tako bidaietan egiten da! **Bitakora** izeneko koadernoan egunero apuntatzen dute gertatutako guztia! Hona hemen bitakora orriko txantilo bat. Idatzi ezazue gabonetako egunik gustukoenean egindakoa.



.....an, 202...eko.....-rena

.....

.....

.....

.....

.....

Jarri ditzakezun gauzak:

.....
bisitatu dugu

Oparirik politena

Janari gustukoena

Euria/eguzkia/hotza...
egin du

.....kin
jolastu dut


Ba al zenekiten??

Zergatik izena ote du "bitakora" koadernoan?

Bitakora, ontzietan dagoen altzaria da. Zubian egoten da, normalean lemaren ondoan eta ipar-orratza gordetzen da barruan. Ontziek zubi estalia eduki baino lehenago, eguraldi txarra egiten zuenean, koadernoan bitakora barruan gordetzen zuten hondatu ez zedin. Horregatik deitzen zaio bitakora koadernoan.



Bitakora armairua




Hemen gordetzen zen koadernoan




9

Itsasontzi batean, itsas korapiloak egiten jakitea ezinbestekoa da. Ontzia portura amarratzeko, gauzak tinko lotzeko... Mari-nelek adituak izan behar dute erabileran. Ba al dakizue baten bat egiten? Bi korapilo egiten ikasteko pausuak dauzkazue hemen. Animo!! Soka bat beharko duzue ariketa egiteko. Grabatu zaitezte korapiloak egiten eta igo zuen bideoak @albaola jarrita. Etiketatu itzazue bi lagun beraiek ere korapiloak egitera animatuz!




LASTEZIA

Marinelentzat oso ezaguna da korapilo hau. Itsasoan arrantza-aparailuak mugitzeko, kargak igotzeko edo salbamenduetarako erabiltzen da. Hemen daukazue pausuaen marrazkiak nola egin ikasteko edo link hemen klikatuz aurkituko duzue pausuen bideoa. <http://www.albaola.com/eu/site/gabonak-2020>



BALLESTRINKEA

Korapilo hau ere oso ezaguna da! Soka, zutabe bati eusteko balio dezake edo ontzia portuan lotzeko. Asko praktikatuz gero, esku batekin egitea lortu dezakezue! Frogatu nahi? Soka eta poste horizontal bat beharko duzue. Jarraitu beheko pausuak edo egin klik linkean bideoa ikusteko. <http://www.albaola.com/eu/site/gabonak-2020>





ZER MODUZ MOLDATU ZARETE?

Ariketa guztiak egin ahal izan dituzue? Albaolak eraikitzen dituen ontzi batzuk ezagutu dituzue, baita marinel prestatuenek jakin beharreko zenbait gako praktikatu ere!

Zuek marraztutako edo eraikitako itsasontzien argazkiak gurekin **elkarbanatzea** gustatuko litzaiguke. Baita korapiloak egiten zein trebeak zareten ikusi ere!! Horregatik, **zuen argazki eta bideoak sare sozialetara igotzen badituzue, saria izango duzue hurrena Albaolara etortzen zaretenean!! Gogoratu Albaola eta erronka proposatzen diezuen bi lagunei etiketatzeaz!**

Harrerako leihatilan etiketatutako argazki edo bideoa erakustea besterik ez duzue egin beharko saria jasotzeko.

Gainera, ez al dituzue San Juan baleontzia eta Juanita Larando patatxearen eraikuntzak ikusi nahi??

ETORRI ZAITEZTE ALBAOLA BISITAZERA!!

Hemen egongo gara zuen zain dena azaltzeko!!

Egin zuen erreserba Albaola bisitatzeko!!

943 39 24 26

bisitak@albaola.com

Ondartxo ibilbidea 1, 20110 Pasai San Pedro

